



Xabat Pagola.

## Sagardoa, Kaxkoa, mendi bueltak... Hernanik erakarri egiten die turistei

Bertakoak eta Katalanak dira Turismo bulegoan, informazio gehien eskatzen dutenak; kanpotarrek ere, geroz eta gehiago bisitatu dute Hernani. Ordutegia: lanegunetan, 10:00-14:00 eta 17:00-20:00; eta igande eta jaiegunetan: 10:00-14:00.

KOSTALDEAK bakarrik ez, Gipuzkoako barrualdeak ere badu xarma berezia, eta turistak horren jakitun dira. Urtertik urtera gehiago dira Hernani bisitatu dutenak; uztaila hasi zenetik 270 lagunek eskatu dute informazioa Biteri ondoan dagoen Turismo Bulegoan. Maria Eizagirre egoten da bertan, gomen dioak eman eta eskatzen dituen leku edo txokoen inguruko informazioa ematen.

**Bisitari kopurua, bikoiztu**  
Bost urte dira Turismo Bulegoa udan martxan jarri zutenetik. Orduko datuekin, 2008koekin, alderatuz gero, bisitari kopurua bikoiztu egin dela dio Eizagirrek: «150 lagun inguruk eskatu zuten hasiera hartan, informazioa. Orain badakite non gauden, eta asko zuzenean etortzen dira guregana. Uztaila bikain dioa, eguraldiak ere, lagundu du eta. 270 lagun inguruk eskatu digute informazioa, hasiera hartako ia bikoitzak».



Maria Eizagirrek ematen du informazioa, bulegoan.

### Bertako eta inguruko informazioa

Bertakoek, Euskal Herrikoek, ezagutzen dute gutxi edo gehiago Hernanik eman dezakeena, eta asko informazio jakinaren bila pasatzen dira: «mendi ibilbideek izugarriko arrakasta dute; asko dira, zuzenean, horren bila etortzen direnak. Eta guztien artean, Larre Gaingo bueltak du arrakasta gehien. Ez da ibilbide luzea, eta ingurua, paregabea, historia askokoa. Ibiltzera ohituago daudenek berriz, Usoko bira egiten dute. Luzeagoa da, zailxeagoa, baina puntu erakargarri askokoa baita ere» dio Maria Eizagirrek.

Euskaldunetz gain, proportzioan, Katalanak dira, Hernani gehien bisitatu dutenak. Beraz, tendentzia

ez da asko aldatu azken urteetan. Hauek informazio orokorraren bila etortzen dira: sagardoa, Kaxko historikoa, janaria... horrek erakartzen die gehien.

Eta atzeritik etortzen direnek, ez dute informazio jakinik izaten herriari buruz. Maria Eizagirrek ematen dizkie gomendioak: «Kaxko historikoak dituen puntu erakargarriak azaltzen dizkiet; Nere Borda parke botanikoaren berri ematen diet; parke eta plazen ruta ere azaltzen diet... hauei ere, Hernanin egin litezkeen ibilbideen berri ematen diet, baina turistek, orokorrean, erdigunea nahiago izaten dute». Prozedentziari erreparatu gero, Europatik etortzen dira asko: Belgika, Alemania, Italia... Estatu Batu eta Hego Ameriketako bisitariak ere

Uztailan frantsesak dira Hernani gehien bisitatu duten kanpotarrek; abuztuan, ingelesak.

izaten dira. Baina bat aipatzekotan, Frantzia. Maria Eizagirren esanetan, uztailan, frantses askok bisitatu dute Hernani; eta abuztuan, Ingelesak izaten dira, gehiago.

### Bisita gidatuak egiteko aukera

Kaxkoa, Santa Barbara eta Larre Gaingo inguruetan bisita gidatuak egiteko aukera eskaintzen dute aurten, nobedade gisa. Aldez aurretik egin behar da eskaera, eta mendi irteerak egiteko taldea, gutxienez, 6 lagunekoa izan behar da. Maria bera da gidaria, eta uztailerako egina du aurreneko erreserba, bertako talde batek, Santa Barbara bisitatzeko: «Alberro sagardotegiaren historia, lakua, gotorlekua... bidean azalpenak ematen dizkiet. Abuzturako ere, beste bi erreserba egin dituzte, kasu honetan, kanpotarrek».

### Aurtengo balorazioa, positiboa

Txotx garaian eta udako bi hilabeteetan egoten da irekia Turismo Bulegoa eta izaten ari den harrerarekin gustura dira: «txotx garaian ez da hainbeste jende ibiltzen, sagardotegira etortzen baitira asko, zuzenean. Uda garaia diferentia izaten da. Azken urteetan gainera, gora dioa turista kopurua. Gipuzkoa barnealdeak geroz eta gehiago erakartzen die eta hori positiboa da guztiontzat». ||

### III. BURUNTZALDEAKO TXAPELKETA

## Sei pelotari hernaniarrek jokatu dute finala, gaur

Lau partiduak Kiroldegian, 10:00etan

BI hilabeteko kanporaketen ostean, Buruntzaldeako Txapelketa iritsi da bukarara. Gaur jokatu dira final haundiak, 10:00etan hasita, Hernaniko kiroldegian. Lau final jokatu dira eta Hernanik ordezkaritza izango du guztietan.

Infantiletan Alain Agirre eta Ioritz Berasarte izango dira aurrez aurre; biak, hernaniarrak. Partidu berdindua espero da, biak baitira etorkizuneko promesak, maila bereko bi pelotari onenak. Aitor Lazkano zen finala jokatzen, baina ezin izango du, oporrak direla eta.

Kadetetan Xabat Pagola eta Suhari Rodrigezek Andoango Arrue eta Aizpurren kontra neurtuko dituzte indarrak. Andoaindarrak dira faborito, baina hernaniarrek sorpresa eman dezakete, ondo jokatu gero.

Jubeniletan Altuna anaiak jokatu dute Azpiroz eta Aburuzaren kontra. Partidu berdindua espero da, eta klabea, bikote hernaniarrak nerbioak kontrolatzea izango da.

Azkenik, senior mailan Urkizu eta Esnaola hernaniarrek Real Sociadadeko Odriozola eta Errazkin izango dituzte aurrean. Urkizu momenturik onenean dago, eta Esnaola torneo bikaina egiten ari da; hortaz, hernaniarrak dira faborito. ||

**cenor BALANTXA**  
ELEKTROGAILUAK

Behar dituzun elektrogailu guztiak ditugu!!

NAGUSIA, 17  
943 33 40 22

APROBETXATU ESKAINTZA  
EGUN BATZUK BAKARRIK

TASSIMO

8 pakete TASSIMO erosi, eta lortu T20 kafetera

9,90€ -tan

TXANTXILLA HERNANI

GARAJEAK SALGAI

Itxiak, 21 m<sup>2</sup>  
Erdigunean  
22.000 €tik aurrera

Informazioa  
LUTE TXANTXILLA  
943 42 95 21

**TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622  
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
 ✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauz:** Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

**EGURALDIA**  
**GAUR** Bero egingo du, gaur ere. Lainoak eta eguzkia tartekatu dira egun osoan zehar. Temperatura, antzeko: Min.19° / Max.25°  
**BIHAR** Hobera egingo du. Giro eguzkitsua nagusituko da orokorrean, nahiz eta tarteka laino batzuk izango diren. Temperatura, freskoago: Min.17° / Max.25° (euskaime)

## SANTIO FESTAK ARANON

# Arkume jateak eta bertsolariak jarriko dute festa gaur, Aranon

Arkume jatea 14:00etan hasiko da eta bertso saioa, 19:00etan. Bihar, umeak protagonista.

GOIZEKO aurreneko orduetik zabalduko da arkumea erretzen ari direnaren usaina Aranon. Joan den urteko arrakasta eta gero, bigarren urtez antolatu dute. 14:00-etan elkartuko dira aranoarrak eta ingurutik animatutakoak, arkumea jatera. Bazkariko produktu guztiak gainera, autoktonoak izango dira, Aranoko baserritarrek ekoiztuak. Arratsaldean Sebastian Lizaso, Iker Zubeldia, Julio Soto eta Aitor Mendiluzek jarriko dute festa, 19:00etan. Eta eguna bukatzeko, beste estilo batekoa, baina musika baita ere, *Elepuntu* DJarekin. Bihar bukatuko dira Santioak Aranon, umeak protagonista izango diren egunarekin: pelota partiduak, dantzariak, puzgarriak, ume jolasak eta Arno ganadutegiko azienta... Izango dute zerekin gozatu! ||

**GAUR**  
**14:00** Arkume jatea  
**Bazkalondoren** Kantu saioa fanfarrearekin  
**19:00** Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Iker Zubeldia, Julio Soto eta Aitor Mendiluzek.  
**Afalostean** Dantzaldia Elepuntu DJarekin  
**BIHAR - UMEEN EGUNA**  
**10:00** Meza  
**10:30** Umeen partidua  
**Segidan** Arano eta Goizuetako dantzariak  
**15:30** Puzgarriak eta ume jolasak  
**19:00** Arno ganadutegiko azienta umeentzat. ||

## ERREMONTA - KUTXA SARIKO PREBIA

# Juaristi eta Endika, Kutxa Sariko aurreneko pasearen bila

Kutxa Sariko Prebiak bi final izango ditu eta gaurkoa izango da aurrenekoa. Partidua jaialdiko bigarrena izango da.

JUARISTIK edo Endikak, bietakoren batek Banakako txapelketa haundia jokatzen pasa lortuko du. Kutxa Sariko Prebiak bi final izango ditu, eta bi izango dira pasea lortuko duten erremontistak. Final horietako bat izango da gaurkoa, Juaristi eta Endikaren artekoa. Aurrelariak dira biak eta urteko txapelketa nagusia jokatzen ilusio haundia dute. Juaristi da partidua irabazteko faboritoa; eta Endikak badaki dena ondo egin beharra duela, pasea lortzeko. Partidua 16:00etan hasiko den jaialdiko bigarrena izango da. ||

## ERRUGBIA

### Hernaniko zortzi jokalarik gaur Hegoalde taldean, Iparralde taldearen kontra

Baionako festen barruan errugbi partidua jokatuko dute gaur Hegoalde eta Iparralde taldeek. Baionako Belaskain zelaian izango da, harresietan, 16:00etan hasita. Hegoalde taldearekin jokatzena Hernaniko zortzi jokalarik deitu dituzte. Partidua Euskariansek antolatu du Euskadiko Federazioaren laguntzarekin eta ateratako dirua Baionako erietxean dauden ume gaixoen zuzentzat izango da. ||

## JOCC ZIKUÑAKO AMA

### Liernira joateko zita bihar, Zinkoenean

JOCC Zikuñako Ama zikloturista taldeko kideek igandeko buelta antolatu dute bihar. Liernira egingo dute joan-etorria, 94 kilometro guztira. Zita goizeko 08:00etan egin dute, Zinkoenean. ||

## UDALA

### Hirigintza eta Ingurumen Batzordea astelehenean, eta Plenoa astertean

Bi bilera deitu ditu Udalak datorren astean. Hirigintza eta Ingurumen Batzordea izango da astelehenean, 18:30etan, bilera gelan; 14 puntu izango dituzte aztergai, pribatuak gehienak. Asteartean berriz, Plenoa deitu dute, 19:00etan, Pleno aretoan. 7 puntu izango dituzte aztergai, tartean, Santa Barbarako landa parkea egokitze proiektua. ||

## OKERRAK ZUZEN

### San Inazio festa asteazkenean izango da

San Inazio eguna ospatzen dute urtero Santa Barbarako tontorrean. Asteazkenean izango da festa (eta ez igandean, atzoko Kronikak zioen moduan). Meza, eguerdiko 12:00etan izango da. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**Akordeia salgai**, Zero Sette markakoa. Deitu: 686 679 075  
**ETXKO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antena ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.  
**Iñigo Royo Masajista**. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**RIOJA TABERNA**

Udara iritsi da eta gaurtik oporrek hartuko ditugu, bueltakoan, berriz ere, indartsu lan egiteko. Abuztuaren 12an irekiko dugu.

kale nagusia, 6

**IÑIGO**  
egur lanak

www.egurlanak.com  
TEL. 699 729 205

Egurinako atarriak, lantzerak, atarriak, iturriak, eta...  
Atarriak, iturriak, eta...  
Atarriak, iturriak, eta...

inigo@egurlanak.com  
Florida auzoa, 56 - nabe 31 Hernani

**SARETXO**

San Inazio eguna dela eta, **TRIKITXA** izango degu.

Zatoz egun eder bat pasatzera.

Marraka-Enea Baserria - Sta Barbara auzoa 92  
Tel.: 943 556 481-943 554 675

**FUNERARIA ORBEGOZO**

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.  
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

Zentrala **HERNANI**  
Latsunbe, 7

- Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...